5.4.– Gainerako baldintzak bete baina kuoten ordainketak egunean ez dituzten elkargokideei, botoa ematea baimenduko zaie, ordainketa bozketa baino gutxienez hamar egun lehenago egiten badute.

6.– Hautagaitzak aurkeztea.

6.1.– Hautagaitza aurkeztu nahi duten elkargokideek hauteskundeak egin baino gutxienez hamabost egun lehenago egin beharko dute.

Jakinarazpen hori banaka nahiz taldeka egin daiteke; bertan agertzen diren hautagaiek sinatu egin beharko dute, eta dagokion elkargo-ziurtagirien bidez c) eta d) puntuetan azaltzen direnak egiaztatu beharko dituzte.

a) Izen-abizenak, elkargokide-zenbakia eta elkargokide-mota, hautagaiarena eta, hutsunerik izanez gero, ordezkoarena, lehendakari izateko hautagaien kasuan izan ezik.

b) Hautagaitza zein kargutarako aurkezten den.

c) Hautagaitza aurkezten den unean elkargoko kuotak eta derramak ordainduta izatea.

d) Elkargoko eskubide guztiak erabiltzeko moduan izatea.

e) Indarrean dagoen legeriaren arabera (apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretua) zin egiteko edo hitza emateko konpromisoa, eta bai estatutuetan jasotzen den lanbideko ordenamendu juridikoari men egitekoa ere.

En el supuesto de renuncia justificada, de ostentar la cualidad de miembro de la Junta de Gobierno renovada o de candidato, o haber sido suspendido en el ejercicio de los derechos colegiales y agotándose los suplentes insaculados por el notario a tal efecto, serán sustituidos por el mismo procedimiento previsto para su designación.

5.– El censo electoral.

5.1.– El censo electoral se formará por la Mesa Electoral.

El censo electoral contendrá la inscripción por orden alfabético de todos los colegiados que, incorporados al Colegio con un mes de antelación a la fecha de convocatoria de las elecciones, reúnan los requisitos para ser elector y no se hallen privados del derecho de sufragio.

5.2.– En el censo electoral se incluirán todos los datos que hagan posible la elección, señaladamente el nombre, dos apellidos, el Documento Nacional de Identidad, el número y modalidad de colegiación.

5.3.– La Mesa Electoral resolverá hasta el momento mismo de iniciarse la votación, las reclamaciones que pudieran suscitarse hasta cuarenta y ocho horas antes de la celebración de la misma.

5.4.– Se permitirá votar a los colegiados que, cumpliendo el resto de los requisitos, no se encuentren al corriente del pago de sus cuotas, si efectúan el mismo antes del décimo día anterior a la votación.

6.– Presentación de candidaturas.

6.1.– Aquellos colegiados que deseen presentar candidatura deberán hacerlo como mínimo con quince días de antelación a la celebración de las elecciones.

Dicha comunicación, que podrá ser individual o conjunta, deberá ser suscrita por el candidato o candidatos incluidos en la misma, conteniendo los siguientes extremos, acreditados los extremos c) y d) mediante las correspondientes certificaciones colegiales:

a) Nombre, apellidos, número de colegiado y modalidad de colegiación del candidato y del suplente, para el supuesto de vacante, excepto para los candidatos a Presidente.

b) Cargo para el que se presenta la candidatura.

c) Hallarse al corriente en el pago de sus cuotas y derramas colegiales en el momento de presentar la candidatura.

d) Encontrarse en pleno disfrute de sus derechos colegiales.

e) Compromiso de prestar Juramento o Promesa según lo establecido en la legislación vigente (Real Decreto 707/1979, de 5 de abril), así como obediencia al Ordenamiento Jurídico Profesional contenido en los Estatutos.

6.2.– Hautagaiak ezin dira kargu bat baino gehiagora aurkeztu, eta ezin dute hautagaitza bat baino gehiagotan parte hartu.

7.– Hautagaiak aldarrikatzea.

7.1.– Hauteskunde-mahaiak aldarrikatuko ditu hautagaiak elkargoko iragarki-oholean, hautagaitzak aurkezteko epea amaitu eta ondorengo bi egun baliodunetan.

7.2.– Hauteskunde-mahaiak ebatziko ditu sor daitezkeen inpugnazioak, bozketak egin baino lehen.

7.3.– Aldarrikatutako hautagaien kopuruak ez badu gainditzen kargu bakoitzerako batzordeko bokalen kopurua, aldarrikapenak hautaketa ekarriko du berarekin, eta horrenbestez, hautaketa egin beharrik ez da izango. Gauza bera gertatuko da lehendakaria besterik aukeratu behar ez denean, hautagai bakarra aldarrikatzen bada.

8.– Hauteskunde-kanpaina.

8.1.– Hauteskunde-kanpainako ekimenak ordenamendu juridikora egokitu beharko dira eta aldarrikatutako hautagaiek ordainduko dituzte. Hautagaiek hautesle-erroldaren kopia bana jasoko dute, elkargokide guztien helbideak jasotzen dituen etiketa-joko bat, eta bai hauteskunde-txartel eta kartazalak ere.

8.2.– Hautagaiek ezingo dituzte erabili hauteskunde-kanpainarako elkargoarenak diren lokalak, ez bestelako baliabide materialak ere.

8.3.– Aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, botoa emateko txartelak eta gutunazalak elkargoan egongo dira, hautesleek bozketaren egunean erabili ahal ditzaten.

8.4.– Botoa emateko bi txartel eta kartazal mota izango dira, bata lehendakaria hautatzeko, eta bestea, beste kolore batekoa, Gobernu Batzordeko gainerako kideak hautatzeko.

9.– Posta bidezko botoa.

9.1.– Botoa posta ziurtatu bidez eman ahal izango da, eta benetakoa eta sekretua dela bermatuko da.

9.2.– Bozketaren egunean elkargoaren egoitza kokatuta dagoen herrian edo bozketa egin behar den lokalean ez direla egongo, edo ezin dutela bertaratu aurreikusten duten hautesleek botoa posta bidez eman dezakete. Horretarako, hautesleek eskabidea egin behar diote hauteskunde-mahaiari, baldintza hauekin bat:

a) Hautesleak hauteskunde mahaiari eskatuko dio, deialdia egiten den egunetik hasi eta bozketaren aurreko hamargarren egunera arte, erroldan izena emanda dagoela dioen ziurtagiria.

b) Eskabidea norbera bertaratuta egingo da eta Nortasun Agiri Nazionala aurkeztu beharko da.

c) Eskabidea norberak egitea eragozten duen gaixotasuna edo ezintasuna izanez gero, beste pertsona batek

6.2.– Ningún candidato puede presentarse para más de un cargo ni formar parte de más de una candidatura.

7.– Proclamación de candidatos.

7.1.– La proclamación de candidatos se hará por la Mesa Electoral en el tablón de anuncios del Colegio y dentro de los dos días hábiles al siguiente de la finalización del plazo para presentar las candidaturas.

7.2.– Las impugnaciones que se produzcan serán resueltas por la misma Mesa Electoral antes de la celebración de la votación.

7.3.– Cuando el número de candidatos proclamados resulte igual o inferior en cada uno de los cargos a elegir al número de los Vocales de la Junta a elegir, la proclamación equivaldrá a la elección, y ésta por tanto, no habrá de efectuarse. Iguales consecuencias se producirán cuando se trate de la elección sólo del Presidente y se proclamase un único candidato.

8.– Campaña electoral.

8.1.– Las actividades de campaña electoral, que deberán ajustarse al ordenamiento jurídico, serán sufragadas por los candidatos proclamados. Éstos recibirán una copia del censo electoral, un juego de etiquetas con las direcciones de todos los colegiados, así como los sobres y papeletas electorales.

8.2.– Los candidatos no podrán utilizar para la campaña electoral los locales ni otros medios materiales o propios del Colegio.

8.3.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior, las papeletas de votación y los sobres estarán en el Colegio a disposición de los electores el día de la votación.

8.4.– Existirán dos tipos de papeletas y sobres de votación, uno exclusivamente dirigido a la elección del Presidente y otro, de distinto color, para el resto de los miembros de la Junta de Gobierno.

9.– Voto por correspondencia.

9.1.– El voto podrá emitirse por correo certificado, garantizando su autenticidad y secreto.

9.2.– Los electores que prevean que en la fecha de la votación no se hallarán en la localidad donde se encuentra ubicada la sede colegial o el local donde se vaya a efectuar la votación, o que no puedan personarse, pueden emitir su voto por correo. A tal efecto, los electores deberán presentar a la Mesa Electoral solicitud que cumpla los requisitos siguientes:

a) El elector solicitará de la Mesa Electoral, a partir de la fecha de la convocatoria y hasta el décimo día anterior a la votación, un certificado de inscripción en el censo.

b) La solicitud deberá formularse personalmente debiendo exhibir su Documento Nacional de Identidad.

c) En caso de enfermedad o incapacidad que impida la formulación personal de la solicitud, cuya existen-

egin ahal izango du eskabidea hauteslearen izenean. Ordezkapena egiteko pertsonari notarioak eman behar dio baimena, hautesle bakoitzari egingo zaion banakako agiri bidez. Agiri berean ezin dira hautesle bat baino gehiago sartu eta pertsona berberak ezin du hautesle bat baino gehiago ordeztu. Hauteskunde-mahaiak kasu bakoitzean egiaztatuko du paragrafo honetan aipatzen direnak betetzen direla.

9.3.– **Eskabide hori jaso ondoren hauteskunde mahaiak** inskripzioa egiaztatuko du, erroldan dagokion ohartarazpena egingo du, hauteskundeetan hauteslea bertaratu eta botoa ematea gertatu ez dadin, eta eskatutako ziurtagiria egingo du.

9.4.– Hauteskunde-mahaiak posta ziurtatu bidez bidaliko dizkio hautesleari, berak adierazi duen helbidera, edo helbiderik adierazi ez badu, erroldan azaltzen denera, hauteskunde-txartelak eta kartazalak, aurreko paragrafoan aipatutako ziurtagiriarekin batera, eta beste kartazal bat elkargoaren helbidearekin, «posta bidezko botoa» dioela.

9.5.– Hautesleak boto-txartela bete ondoren, botoa emateko kartazalean sartuko du eta itxi egingo du. Botoa emateko kartazala, ziurtagiria eta Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia hauteskunde mahairi zuzendutako kartazalean sartuko ditu eta posta ziurtatuz bidaliko ditu. Baliozkoak izango dira aipatutako baldintzak betetzen dituzten eta hautestontziak itxi baino lehen hauteskunde-mahaira iristen diren kartazal guztiak.

10.– Artekariak.

Hautagaitza bateratu edo banakako hautagai bakoitzak artekari bat izendatu ahal izango du, erroldan hautesle gisa izena emanda daudenen artean, hauteskunde mahaiaren aurrean.

Artekariak hauteskunde mahaira joan eta eztabaidetan parte hartu ahal izango du, bozketarako adierazitako egunean, ahotsarekin baina botorik gabe.

11.– Bozketa.

11.1.– Gobernu Batzordean hutsik dauden karguak hautatzeko bozketak txartel bidez egingo dira beti; aldarri bidez egindako izendapenak ez dira baliozkoak izango.

11.2.– **Bozketaren hasieraren akta egin eta hauteskunde-mahaia** bertan dauden kideek eta artekariek sinatuta eratu ondoren, bozketa hasiko da eta ezarritako ordura arte jarraituko du, etenik gabe.

11.3.– Bere kabuz jarduten duenaren eta enpresan jarduten duenaren botoak balio bikoitza izango du eta jarduten ez duenaren eta supernumerarioarenak balio sinplea; hori egin ahal izateko bi hautestontzi egongo dira xede bererako.

11.4.– Hautesle bakoitzak x batekin adieraziko ditu txartelaren ezkerreko ertzean lehendakari eta bokal izateko hautagaiak.

cia deberá acreditarse por medio de certificación médica oficial, aquélla podrá ser efectuada en nombre del elector por otra persona autorizada notarialmente mediante documento que se extenderá individualmente en relación con cada elector y sin que en el mismo pueda incluirse a varios electores, ni una misma persona pueda representar a más de un elector. La Mesa Electoral comprobará, en cada caso, la concurrencia de las circunstancias a que se refiere este apartado

9.3.– Recibida dicha solicitud la Mesa Electoral comprobará la inscripción, realizará la anotación correspondiente en el censo, a fin de que en las elecciones no se realice el voto personalmente, y extenderá el certificado solicitado.

9.4.– La Mesa Electoral remitirá por correo certificado al elector, al domicilio por él indicado o, en su defecto, al que figure en el censo, las papeletas y los sobres electorales, junto con el certificado mencionado en el párrafo anterior, y un sobre en el que figurará la dirección del Colegio y la indicación «voto por correo».

9.5.– Una vez que el elector haya rellenado la papeleta de voto, la introducirá en el sobre de votación y la cerrará. Incluirá el sobre de votación, el certificado y fotocopia del Documento Nacional de Identidad en el sobre dirigido a la Mesa Electoral y lo remitirá por correo certificado. Será válido todo sobre que, cumpliendo los precitados requisitos, llegue a la Mesa Electoral antes del cierre de las urnas.

10.– Interventores.

Cada candidatura conjunta o cada candidato individual podrá nombrar ante la Mesa Electoral, entre quienes figuren inscritos como electores en el censo, a un interventor.

El interventor podrá asistir a la Mesa Electoral el día señalado para la votación y participar en las deliberaciones con voz pero sin voto.

11.– Votación.

11.1.– Las votaciones para la elección de cargos vacantes de la Junta de Gobierno serán siempre por papeletas, no siendo válidas las designaciones hechas por aclamación.

11.2.– Extendida el acta de inicio de la votación y constitución de la Mesa Electoral a esos efectos, firmada por sus miembros y los interventores presentes, comenzará la votación, que continuará sin interrupción hasta la hora señalada.

11.3.– El voto del Ejerciente Libre y de Empresa tendrá valor doble, y el de No Ejerciente y Supernumerario, simple, a cuyo fin existirán dos urnas con el mismo objeto.

11.4.– Cada elector marcará con una x, en el margen izquierdo de las papeletas, al candidato a Presidente y a los vocales.

11.5.– Hautesleek mahaiko lehendakariari emango dizkiote bozketako txartelak, gutunazal ofizialean sartuta, eta mahaiko lehendakariak dagokion hautestontzian sartuko ditu.

11.6.– Hauteskunde-mahaiko bokalak zenbakidun zerrenda batean idatziko ditu boto emaileen izen-abizenak, botoa emateko hurrenkeraren arabera, hautesleen erroldaren zerrendan duten zenbakia adierazita.

11.7.– Bozketa amaitu ondoren, Lehendakariak hautestontzian sartuko ditu posta bidez bidalitako boto-txartelak dauzkaten gutunazalak; aurretik adierazitako gorabeherak eta hauteslea erroldako zerrendan izena emanda dagoela egiaztatu beharko dira.

11.8.– Segidan hauteskunde-mahaiko kideek eta artekariek emango dute botoa.

11.9.– Azkenik, hauteskunde-mahaiko kideek eta artekariek izenpetuko dute boto emaileen zenbakidun zerrenda, orri guztien ertzean eta idatzitako azken izenaren azpian.

12.– Zenbaketa.

12.1.– **Bozketa amaitu ondoren hasiko da zenbaketa**; hauteskunde-mahaiak egingo du zenbaketa eta jendaurrekoa izango da.

Boto-txartelak zenbatzeko hurrenkera hau da: lehenengo jardunekoak ez direnak; bigarren supernumerarioak; hirugarren enpresan jarduten duten elkargokideak; eta azkenik beren kasa jarduten dutenak.

12.2.– Baliogabeko botoa izango da eredu ofizialeko gutunazal edo paperean ematen ez den botoa edo eredu ofizialean emana izan arren nolabaiteko aldaketa jasan duena (azaltzen diren hautagaien izenak aldatu, erantsi, nabarmendu edo ezabatzea, edo izenen hurrenkera aldatzea). Baliogabea izango da, baita ere, gutunazalik gabeko txartel bidez emandako botoa edo hautagaitza bat baino gehiago dauzkan gutunazal bidez emandakoa. Gutunazalak hautagaitza bereko txartel bat baino gehiago badauzka, baliozko boto bakartzat joko da. Boto baliogabetzat jo dira, halaber, bete beharreko kargu baino izen gehiago dauzkaten txarteletan emandako botoak.

12.3.– **Boto zuritzat joko da txartelik ez duen gutunazala.**

12.4.– **Zenbaketa amaitutakoan, gutunazalen kopurua** eta goian aipatutako zerrendan idatzitako boto emaileena erkatuko dira.

12.5.– Ondoren, lehendakariak zenbaketaren aurka protestarik dagoen galdetuko du eta, ez baldin badago edo egonez gero mahaiak gehiengoz ebatzi ondoren, ozenki iragarriko du hauteskundeen emaitza. Emaitza ematen denean, lehendakariak honako xehetasun hauek emango ditu: erroldatutako hautesleen kopurua, aurkeztutako errolda-ziurtagirien kopurua, boto emaileen kopurua, baliogabeko txartel-kopurua, boto zurien kopurua eta hautagaitza bakoitzak lortutako botoen kopurua.

11.5.– Los electores entregarán personalmente a quien presida la Mesa sus papeletas de voto, introducidas en sobre oficial, y éste las introducirá en la urna correspondiente.

11.6.– El vocal de la Mesa Electoral anotará en una lista numerada el nombre y apellidos de los votantes por el orden que emita su voto, expresando el número con que figuran en la lista del censo electoral.

11.7.– Una vez finalizada la votación el Presidente procede a introducir en la urna los sobres que contengan las papeletas de votos remitidas por correo, verificando antes que se cumplen las circunstancias expresadas y que el elector se halla inscrito en las listas del censo.

11.8.– A continuación votarán los miembros de la Mesa Electoral y los interventores.

11.9.– Finalmente se firmarán por los miembros de la Mesa Electoral e interventores la lista numerada de votantes, al margen de todos sus pliegos e inmediatamente debajo del último nombre escrito.

12.– Escrutinio.

12.1.– Terminada la votación comenzará el escrutinio, que será realizado con carácter público por la Mesa Electoral.

El orden para escrutar las papeletas es el siguiente: primero, las de no ejercientes; segundo las de supernumerario; tercero las de colegiados ejercientes de empresa y finalmente, las de ejercientes libres.

12.2.– Será nulo el voto emitido en sobre o papeleta diferente del modelo oficial o que siéndolo se haya producido cualquier tipo de alteración (v. gr. modificado, añadido, señalado o tachado nombres de los candidatos comprendidos en ellas o alterado su orden de colocación). Igualmente será nulo el voto emitido en papeleta sin sobre o en sobre que contenga más de una papeleta de distinta candidatura. En el caso de contener más de una papeleta de la misma candidatura, se computará como un solo voto válido. También se reputarán nulos los votos emitidos en papeletas en las que se hubieran señalado más nombres que cargos a cubrir.

12.3.– Se considerará voto en blanco el sobre que no contenga papeleta.

12.4.– Terminado el recuento, se confrontará el total de sobres con el de votantes anotados en las listas numeradas a que se ha hecho referencia más arriba.

12.5.– A continuación el Presidente preguntará si hay alguna protesta que hacer contra el escrutinio y, no habiendo ninguna o después de que la Mesa resuelva por mayoría las que se hubieran presentado, anunciará en voz alta su resultado. Al emitir el resultado, el Presidente especificará el número de electores censados, el de certificaciones censales aportadas, el número de votantes, el de papeletas nulas, el de votos en blanco y el de los votos obtenidos por cada candidatura.

12.6.– Hautestontzietatik ateratako txartelak bertaratutako guztien aurrean suntsituko dira, boto baliogabeak edo erreklamazioren bat izan dutenak izan ezik; horiek aktari erantsiko zaizkio eta aktarekin batera jasoko dira, mahaiko kideek errubrikatu ondoren.

12.7.– Mahaiak berehala jakinaraziko ditu emaitzak aktaren bidez. Paragrafo honetako 5. puntuan adierazitako datuak jasoko ditu aktak, gerta daitezkeen erreklamazioak barne. Egindako zenbaketaren eta hautagaien aldarriaren aurka gerora egon daitezkeen errekurtsoak ebazteko ezinbestekoa izango da erreklamazioa unean bertan egin izana eta aktan jaso izana. Akta hauteskunde-mahaiko idazkariak baimenduko du eta artekariek eta mahaiko gainerako kideek izenpetuko dute, eta berehala ipiniko da elkargoaren egoitzako sarreran edo iragarki-oholean. Hautagaitza bakoitzaren ordezkariari aktaren kopia bana emango zaio, bertan egon eta eskatzen badute, edo hala egokituz gero, artekariei, ahalordedunei edo hautagaiei. Hautagaitza bakoitzeko ez da kopia bat baino gehiago emango.

Bi bokal edo gehiagoren artean boto zenbatekoari dagokionez berdinketarik baldin badago, elkargoan antzinatasun gehien dutenak aldarrikatuko dira hautetsitzat.

12.8.– Aurreko eragiketa guztiak burutu ondoren, mahaiko lehendakariak, bokalek eta artekariek bilkurako aktan izenpetuko dute.

Bilkurako aktak zehatz-mehatz adieraziko ditu honako hauek: hautesleen kopurua, botoa eman duten hautesleen kopurua, boto baliogabeen kopurua, boto zurien kopurua, hautagaitza bakoitzak eskuratu dituen botoak, bozketaz eta zenbaketaz egindako erreklamazioen eta protesten laburpena, hala egokituz gero, eta mahaiak horiei buruz hartutako ebazpenak, boto partikularrak eta guzti, egonez gero. Halaber, bozketan eta zenbaketan egon den edozein gorabehera jasoko da.

13.– Kargua aldarrikatzea.

13.1.– Hauteskunde-mahaiak lehendakaria hautatuko du, beren beregiko bozketa izendun bidez; boto gehien jaso dituen hautagaia une horretantxe aldarrikatuko da hautetsitzat.

Boto zenbatekoari dagokionez berdinketarik baldin badago, elkargoan antzinatasun gehien duena aldarrikatuko da hautetsitzat.

13.2.– Lehendakariorde, diruzain eta idazkari karguak Gobernu Batzordeak izendatuko ditu Batzar Nagusiak hautatutako bokalen artean eta lehendakariaren proposamenaren arabera.

14.– Kontseilu Nagusiari jakinaraztea eta jabetza hartzea.

14.1.– Gobernu Batzordea eratu dela jakinaraziko zaio Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoen Kontseilu Nagusiari eta, hala egokituz gero, Euskal Autono-

12.6.– Las papeletas extraídas de las urnas se destruirán en presencia de los concurrentes con excepción de aquellas a las que se hubieran negado validez o que hubieran sido objeto de alguna reclamación, las cuales se unirán al acta y se archivarán con ella, una vez rubricadas por los miembros de la Mesa.

12.7.– La Mesa hará públicos, inmediatamente, los resultados por medio de un acta que contendrá los datos expresados en el párrafo 5.º de este apartado, incluyéndose las reclamaciones a que hubiere lugar, siendo imprescindible para deducir un posterior recurso contra el escrutinio realizado y la proclamación de candidatos efectuada, haber formulado la reclamación en dicho momento y que la misma conste en el acta. Este acta será autorizada por el Secretario de la Mesa Electoral y la suscribirán los interventores y demás miembros de la Mesa, fijándola sin demora alguna en la entrada o tablón de anuncios de la sede colegial. Una copia de dicha acta será entregada a los representantes de cada candidatura que hallándose presentes la soliciten o en su caso, a los interventores, apoderados o candidatos. No se expedirá más de una copia por candidatura.

En caso de empate en el número de votos entre dos o más vocales, serán proclamados electos los de mayor antigüedad en la colegiación.

12.8.– Concluidas todas las operaciones anteriores, el Presidente, los vocales y los interventores de la Mesa firmarán el acta de la sesión.

El acta de la sesión expresará detalladamente el número de electores, el de los electores que hubieren votado, el de las papeletas nulas, el de las papeletas en blanco y el de los votos obtenidos por cada candidatura y consignará sumariamente las reclamaciones y protestas formuladas, en su caso, sobre la votación y escrutinio, así como las resoluciones motivadas de la Mesa sobre ellas, con votos particulares si los hubiera. Asimismo, se hará constancia de cualquier incidente ocurrido en el transcurso de la votación y escrutinio.

13.– Proclamación del cargo.

13.1.– La Mesa Electoral elegirá el cargo de Presidente mediante votación nominal expresa, proclamando electo en ese mismo momento al candidato que haya obtenido mayor número de votos.

En caso de empate en el número de votos resultará proclamado el de mayor antigüedad en la colegiación.

13.2.– Los cargos de Vicepresidente, Tesorero y Secretario, serán designados por la propia Junta de Gobierno de entre los Vocales elegidos por la Junta General y a propuesta del Presidente.

14.– Comunicación al Consejo General y toma de posesión.

14.1.– En el plazo de cinco días desde la constitución de la Junta de Gobierno, se comunicará ésta al Consejo General de Colegios de Graduados Sociales y

mia Erkidegoko Kontseiluari, batzordea eratu eta bost eguneko epean. Horien bitartez, dagokion ministerioari eta autonomia erkidegoko sailari jakinaraziko zaio, osaeraren berri emanez eta legezko baldintzak betetzen direla jakinaraziz. Berdin egingo da edozein arrazoi dela medio Gobernu Batzordearen kideak aldatzen direnean.

14.2.– Lehendakari eta Gobernu Batzordeko gainerako kide gisa karguak jabetzan hartu aurretik, hautatutakoek apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan ezartzen den zin egitea edo hitz ematea egin beharko dute.

14.3.– Hautatzen duten unean bertan hartuko du kargua jabetzan lehendakariak, eta gainerako kideek lehenengo Gobernu Batzordean.

15.– Errekurtsoak.

Hauteskunde-batzordeek eta hauteskunde-mahaiek hauteskundeei buruz hartutako erabakien aurka estatutu hauetan oro har ezarritako errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira. Errekurtso horiek ez dute erabakien etendurarik ekarriko.

44. artikulua.– Norberak emango du botoa eta sekretua izango da, elkargokideen parte hartze aske eta berdintasunezkoaren printzipioari egokituta, horretarako deitutako hauteskundeak egiten direnean, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 72.etik 75.era bitarteko artikuluetan edo Kontseilu Nagusiaren edo Autonomikoaren araubidean ezartzen den bezala, benetakotasuna bermatzeko.

45. artikulua.– Hauteskundearen emaitza inpugnatu ahal izango da, elkargoko egintzen aurkako errekurtsoetarako estatutu hauetan egiten diren aurreikuspenen arabera.

46. artikulua.– Lehendakari eta Gobernu Batzordeko gainerako kide gisa hautatutakoek karguak jabetzan hartu aurretik, estatutu hauetako 50. artikuluan adierazten den zin egitea edo hitz ematea egin beharko dute.

Hautatzen duten unean bertan hartuko du kargua jabetzan lehendakariak, eta gainerako kideek lehenengo Gobernu Batzordean, eskumena duten agintarien aurrean egiten den protokolozko ekitaldia alde batera utzi gabe.

Kontseiluak batzordea osatzen denetik 5 eguneko epea dagoela adierazten du.

Gehienez ere hilabeteko epean jakinarazi beharko zaio Gobernu Batzordearen osaera lanbide-elkargoen arloan eskumena duen sailari.

47. artikulua.– Edozein arrazoirengatik Gobernu Batzordeko karguren bat agintearen arauzko indarraldia amaitu baino lehenago hutsik gelditzen bada, txartelean ordezko gisa ageri denak beteko du kargua, hutsunea eragin duen kideari betetzeko falta zaion denborarako.

en su caso, al Consejo Autonómico. A través de éstos, se comunicará al Ministerio y Consejería Autonómica correspondientes, participando su composición y el cumplimiento de los requisitos legales. De igual forma se procederá cuando se produzca modificación en los componentes de la Junta de Gobierno por cualquier causa.

14.2.– Los elegidos como Presidente y demás cargos de la Junta de Gobierno, antes de tomar posesión de sus cargos, deberán proceder a prestar el juramento o promesa, establecido en el Real Decreto 707/1979, de 5 de abril.

14.3.– El Presidente tomará posesión en el acto de ser elegido, y los demás miembros en la primera Junta de Gobierno.

15.– Recursos.

Contra los acuerdos de las Juntas de Gobierno y Mesas Electorales relativos a las elecciones, podrán interponerse los recursos, establecidos con carácter general en los presentes Estatutos. Éstos no tendrán efectos suspensivos.

Artículo 44.– El voto se ejercerá personalmente en forma secreta, ajustándose al principio de libre e igual participación de los colegiados, al celebrarse las elecciones convocadas al efecto, en la forma establecida por la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en sus artículos 72 al 75 y por la regulación del Consejo General Estatal o Autonómico, para garantizar su autenticidad.

Artículo 45.– El resultado de la elección podrá ser impugnado de acuerdo con las previsiones que se hacen en estos Estatutos para el recurso contra los actos colegiales.

Artículo 46.– Los candidatos elegidos como Presidente y demás miembros de la Junta de Gobierno, antes de tomar posesión de sus cargos, deberán proceder a prestar el juramento o promesa al que se hace referencia en el artículo 50 de estos Estatutos.

El Presidente tomará posesión en el acto de ser elegido y los demás miembros en la primera Junta de Gobierno, sin perjuicio del acto protocolario que se efectúe ante las autoridades competentes.

El Consejo señala el plazo de 5 días desde la constitución de la Junta.

En el plazo máximo de un mes, deberá comunicarse la composición de la Junta de Gobierno al Departamento competente en materia de Colegios Profesionales.

Artículo 47.– Si por cualquier motivo, quedase vacante alguno o algunos de los cargos de la Junta de Gobierno antes de la expiración del mandato reglamentario, ocupará el mismo quien figure como suplente en la papeleta y por el tiempo que le faltase por cumplir al miembro que cause vacante.

Salbuespena izango da lehendakaria: horren ordezkoa lehendakariordea da arauz, estatutu hauetan ezarri bezala beste lehendakari bat hautatu arte.

48. artikulua.– Gobernu Batzordea gutxienez hilean behin bilduko da; eta lehendakariak deitzen duenean edo kideen ehuneko hogeik eskatzen duenean ere bilduko da.

Gobernu Batzordeko kide guztiek nahitaez joan beharko dute bileretara. Jarraian hiru bileretara edo urtebeteko epean —jarraian izan gabe— bost bileretara behar bezala justifikatu gabe huts eginez gero, berehala kargutik kentzeko zehapena jaso dezakete. Dena dela, horrek ez du bazter uzten estatutu hauetako 71. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa.

49. artikulua.– Elkargokideek lehendakariari, Gobernu Batzordeko kideren bati edo Gobernu Batzorde osoari zentsura-mozioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Elkargoko kideen bi herenek sinatu beharko dute zentsura-mozioa. Gipuzkoako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialeko Batzar Nagusiak eztabaidatu, eta hala egokituz gero, onartuko du.

HIRUGARREN ATALA
LEHENDAKARIA ETA GOBERNU BATZORDEKO GAINERAKO KIDEAK

50. artikulua.— Lehendakariak elkargoaren ordezkaritza izango du, dela epaiketan edo epaiketetatik kanpora, elkargoko erabaki guztien betearazlea izango da, Batzar Nagusiaren, Gobernu Batzordearen eta lanbatzordeen saioak deituko eta gidatuko ditu, elkargoko organoen lana koordinatuko du, guztien buru izango delarik, eta berdinketak ebatziko ditu kalitateko botoarekin, bi bozketa egin ondoren berdinketak jarraitzen badu. Halaber, ordezkotzaz hartuko ditu elkargoaren egiteko guztiak, presako arrazoiak direla-eta bere ustez beharrezkoa denean, eta ebazpenak eta neurri egokiak hartu ahal izango ditu bere erantzukizunpean, Gobernu Batzordearen jakinaraztea eta baliokidetzea ere eska ditzakeelarik. Kobrantzak eta ordainketak aginduko ditu, elkargoko agiriak sinatuz eta idazkariak egindako ziurtagiriak eta Batzar Nagusiko eta Gobernu Batzordeko aktak bere oniritziarekin baimenduz, eta elkargoko administrazio-lanak koordinatu eta gidatuko ditu, idazkariarekin batera.

51. artikulua.– Lehenengo eta bigarren lehendakariordeek ordeztuko dute lehendakaria, lehendakariak bere egitekoak ezin dituenean gauzatu, eta baita lehendakariak agintzen dieten batzorde guztietan ere, etengabe; kasu horretan egitekoak nola garatu dituzten jakinarazi beharko diote lehendakariari.

52. artikulua.– Idazkariari dagokio, fede-emailea denez, aktak eta gutun ofizialak idaztea, lehendakariarekin batera elkargoaren administrazio-lanak zuzentzea, eta bai dokumentazioa artxibatzea eta zaintzea ere. Haren esku egongo da, halaber, lehendakariaren oniri-

Se exceptúa el Presidente, que se sustituye reglamentariamente por el Vicepresidente, hasta la elección del nuevo Presidente en los términos establecidos en estos Estatutos.

Artículo 48.– La Junta de Gobierno se reunirá por lo menos una vez al mes, y en todo caso siempre que la convoque el Presidente o la solicite la mitad más uno de sus componentes.

La asistencia a las sesiones de la Junta de Gobierno será obligatoria para todos sus miembros, pudiendo ser sancionados con la separación inmediata de su cargo aquellos que no asistieran a tres sesiones consecutivas o cinco alternas en el plazo de un año y no justificaran debidamente su inasistencia, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 71 y siguientes de estos Estatutos.

Artículo 49.– Los colegiados podrán ejercer el derecho a elevar mociones de censura al Presidente o a alguno de los miembros de la Junta de Gobierno o contra ésta en pleno, debiendo ser suscrita por las dos terceras partes de los componentes del Colegio, que será debatida y, en su caso aprobada por la Asamblea General del Colegio Oficial de Graduados Sociales de Gipuzkoa

SECCIÓN TERCERA
DEL PRESIDENTE Y DEMÁS CARGOS DE LA JUNTA DE GOBIERNO

Artículo 50.– El Presidente tendrá la representación del Colegio en juicio y fuera de él, será el ejecutor de todos los acuerdos del Colegio, convocará y presidirá las sesiones de la Asamblea General, de la Junta de Gobierno y de las Comisiones de Trabajo, coordinará la labor de los distintos Órganos Colegiales, presidiendo todos ellos y resolverá los empates con su voto de calidad si aquellos subsistieran durante dos votaciones sucesivas. Igualmente, asumirá por delegación todas las funciones del Colegio en los casos de urgencia que a su juicio lo requiera, y podrá adoptar las resoluciones y medidas pertinentes bajo su responsabilidad y a reserva de someterlos al conocimiento y convalidación de la Junta de Gobierno, será el ordenador de los cobros y de los pagos firmando la documentación colegial y autorizando con su Visto Bueno las Certificaciones expedidas por el Secretario y las actas de la Asamblea General y de las Juntas de Gobierno, y coordinará y dirigirá con el Secretario los trabajos administrativos del Colegio.

Artículo 51.– El Vicepresidente primero y segundo sustituirán al Presidente cuando éste no pudiera ejercer sus funciones y en todas aquellas comisiones que les encomiende el Presidente con carácter permanente, siendo necesario que informen al mismo del desarrollo de su cometido.

Artículo 52.– Corresponderá al Secretario, que tiene carácter fedatario, redactar las actas y correspondencia oficial, dirigir los trabajos administrativos del Colegio conjuntamente con el Presidente, así como el archivo y custodia de su documentación, también tendrá a su

tziarekin ziurtagiriak ematea, elkargokideen sinadurak legeztatzea eta elkargoaren urteroko memoria idaztea.

Elkargoko zerbitzu guztien eta langile-zerrendako pertsona guztien kontrol zuzenaz eta berehalakoaz arduratuko da, halaber; langileen burua izango da. Elkargoko informazio-orriko zuzendaritza egokituko zaio, halaber, elkargokideak informatzeko. Elkargora iristen diren eskaera eta komunikatu guztiak jasotzea eta horien berri lehendakariari ematea ere berari dagokio.

53. artikulua.– Idazkariordeak ordeztuko du idazkaria, ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, idazkariak dituen ahalmen eta betebehar berberekin. Idazkariak behar duen aldioro lankidetza eskainiko dio, halaber.

54. artikulua.– Diruzainak bere ardurapean gordeko ditu gutxienez beharrezkotzat jotzen diren fondoak, finantza-erakunde batean sartuta eduki beharko ditu elkargoaren fondoak, eta Gobernu Batzordeak hartutako erabakiekin bat inbertituko ditu (horrek ez ditu alde batera utziko lehendakariak agindu ditzaken kobrantzak eta ordainketak), eta elkargoaren ondareari dagokiona ere zainduko du.

Egiteko hauek dagozkio, gainera: Gobernu Batzordeari aldian-aldian diru-sarreren eta gastuen berri ematea, eta bai aurrekontuaren zenbatekoarena ere, eta urtero mugaeguneratutako urteko kontuak gauzatzea. Kontabilitatea kontrolatu eta kaxa egiaztatu behar ditu; halaber, elkargoko kapitalaren errentak eta interesak kobratu eta administratu behar dituen elkargo-ondasun guztien inbentario zehatza egin behar du.

55. artikulua.– Kontulariak kontabilitateko agiri guztien kontu hartzea egingo du, eta balantze, kontu eta urteko aurrekontu guztiak idatzi behar ditu Gobernu Batzordeak onar ditzan.

Kontulariak eta diruzainak elkar ordeztuko dute bietakoren bat falta denean, hutsunea edo gaixotasuna izanez gero; bata bestearekin elkarlanean arituko da, halaber, bere egitekoetan.

LAUGARREN ATALA
ELKARGOKO GAINERAKO ORGANOAK

56. artikulua.– Gobernu Batzordeak ondoren aipatzen diren batzordeak sortu ahal izango ditu, behin betiko nahiz aldi baterako izaerarekin; batzorde horietako karguek ohorezko izaera izango dute.

Kultura eta lanbide-prestakuntzako batzordea.

Egiteko hauek izango ditu:

a) Egoki irizten diren ikastaroak, hitzaldiak eta solasaldiak antolatzea, elkargokideak prestatzeko eta elkargokideen prestakuntza hobetzeko.

cargo la expedición de certificaciones con el Visto Bueno del Presidente, legalización de firmas de colegiados y redacción de la Memoria Anual del Colegio.

Llevará asimismo, el control directo e inmediato de todos los servicios colegiales y de las personas afectas a la plantilla de los mismos y ostentará la Jefatura de Personal. Le corresponderá también la Dirección del Boletín Informativo del Colegio para la información a los colegiados. Igualmente le corresponde recibir y dar cuenta al Presidente de todas las solicitudes y comunicaciones que se remitan al Colegio.

Artículo 53.– El Vicesecretario sustituirá al Secretario en los casos de ausencia o enfermedad, con sus mismas facultades y obligaciones. Asimismo, prestará su colaboración en cuantos asuntos sea requerido por el Secretario.

Artículo 54.– El Tesorero conservará bajo su responsabilidad los fondos que se estimen mínimos necesarios, deberá tener depositados en una entidad financiera los fondos propios del Colegio, invirtiéndolos según los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno, sin perjuicio de la ordenación de cobros y pagos por parte del Presidente, cuidará asimismo de lo concerniente al patrimonio del Colegio.

Le corresponden además las siguientes funciones: informar periódicamente a la Junta de Gobierno de la cuenta de ingresos y gastos así como la cuantía del presupuesto y formalizar anualmente las cuentas del ejercicio económico vencido. Igualmente, debe controlar la contabilidad y verificar la caja, cobrar las rentas e intereses del capital colegial y llevar minucioso inventario de todos los bienes del Colegio de los que es Administrador.

Artículo 55.– Corresponde al Contador, la intervención de todos los documentos contables, así como la redacción para su aprobación por la Junta General de todos los balances, cuentas y presupuestos anuales.

El Contador y el Tesorero se sustituirán mutuamente en casos de ausencia, vacantes o enfermedad, colaborando igualmente en el ejercicio de sus funciones respectivas.

SECCIÓN CUARTA
OTROS ÓRGANOS DEL COLEGIO

Artículo 56.– La Junta de Gobierno podrá crear con carácter transitorio o permanente, las comisiones que se citan a continuación, cuyos cargos tendrán en todo caso carácter honorífico.

Comisión de Cultura y Formación Profesional.

Que realizará las siguientes funciones:

a) Organización de cursos, conferencias y coloquios que se estimen convenientes para la formación y perfeccionamiento de los colegiados.

b) Elkargoko liburutegia antolatzea eta eguneratzea.

c) Elkargokideei informazio zientifikoa eta teknikoa emateko zerbitzua.

d) Gai juridikoetan eta gizarteko eta laneko gaietan sakondu ahal izateko mintegiak eta lan-taldeak etengabe antolatzea eta garatzea.

Lanbide-prestakuntzarako sustapena eta garapena, eta bai profesional guztiek beharrezkoa duten etengabeko hobekuntza eta birziklapena ere.

Intrusismoaren eta bidegabeko lehiaren batzordea.

Batzorde horren xedea pertsona, entitate, enpresa-elkarte eta sindikatuei lan-harremanetako graduatuen eskumenen eremuan sartzea ekiditea izango da, eta bai bidegabeko lehia eragin dezaketen egintzak antzematea ere, urtarrilaren 10eko 3/1991 Legean azaltzen den bezala. Horretarako, administrazio-espediente eta ekintzei buruzko proposamenak egingo dizkiote Gobernu Batzordeari, dagokion jurisdikzioaren aurrean, jakinarazten diren salaketa eta agirien berri eman ondoren.

Batzorde honek harremanak izan beharko ditu, etengabe, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden eta eragina izan dezaketen lanbide-elkargoekin.

Etika eta lanbide-sarien batzordea.

Elkargokideek etikari eta deontologia kodeari egokitzen ez zaizkien jarduerak eginez gero, batzorde honek Gobernu Batzordeari jakinaraziko dio, eta elkargokideen minuten aurka egin daitezkeen erreklamazioei buruz ere iritzia emango du.

Lehendakaritzari aholkuak emateko batzordea.

Elkargoko interesak ahalik eta ondoen betetzeko interesgarri jotzen dituen gaiei buruz elkargoko lehendakaria uneoro jakinaren gainean edukitzea izango du egitekoa. Elkargoko lehendakari ohi guztiez osatua egongo da eta Gobernu Batzordeari proposatuko dio merezi duten pertsonei eta erakundeei elkargo-merezimenduaren dominak ematea eta ohorezko elkargokideak egitea.

Harreman publikoetarako eta erakundeetarako batzordea.

Elkargoaren interesetarako eta interes orokorrerako komenigarriak diren gai guztiak proposatzea eta jakinaraztea izango du egitekoa. Egungo eskakizunekin hobeto datorren lanbide-irudia zabalduko du, halaber, gizarteko komunikabideen bitartez.

Xede berarekin, elkargoaren ordezkaritza eskatzen duten ekitaldi guztietan parte hartzea iradokiko dio lehendakaritzari, hala nola, hitzaldietan, kongresuetan eta lanbide-batzarretan. Halaber, Gobernu Batzordeari

b) La organización, actualización y puesta al día de la biblioteca del Colegio.

c) El servicio de información científica y técnica para los colegiados.

d) La organización y desarrollo, con carácter permanente, de seminarios o equipos de trabajo, dedicados a profundizar en materias sociales y jurídico-laborales.

La promoción y desarrollo de la formación profesional, así como el necesario perfeccionamiento y reciclaje, con carácter permanente, que requiere todo profesional.

Comisión de Intrusismo y Competencia Desleal.

